

MUGAK

**PREBIZIAK LAGUNDU
OMEN DIGU**

kale irakurrea

orriak 4/18:00

MUSIKA eskola aurretik

abiaruta

EDUZELAETA

+

MUGALDEKOLAK

HKLEUS



mugak

–presbiziak lagundu omen digu–

Edu Zelaieta + Mugaldekoak

2025-10-04

HERNANI

Testu guztiak EDU ZELAIETAREN poemak dira,
“Presbiziak lagundu omen digu” liburutik hartuak
(Pamiela, 2024)





Lehen geltokia



1. PRESBIZIAK LAGUNDU OMEN DIGU

«Per vèncer la distància que ha imposat l'atzar.»

MIREIA CALAFELL

Presbiziak lagundu omen digu
lauso dena argiago ikusten:
betiko ignorantzia zaharrek
gaituzte agerian biluzten.

Betaurrekoak jantzita
dakusagu hurbilekoan:
bakoitzak aukeratzen du
estrategia urteen jarioan.

Nire aurpegi mehartu hau,
zure haragi mamitsuak:
denbora-jainkoaren kontra
ero diharduten errukitsuak.

Lagundu omen digu presbiziak
distantziak ongi kalkulatzeko:
oraingo ignorantzia berriek
gaituzte oharkabea zahartzen.

<https://www.pamiela.com/audio/presbiziak.mp3>

2. ARRUNT ETA ARRAS

*«... jabetu arte norberaren lotsa dela
bestea lotsarazteko aukera paregabea.»*

MARI LUZ ESTEBAN

Zaila da,
arrunt eta arras,
zure gorputzetik
bertze gorputz bat
muinez ulertzea.

Behar gorriak,
premia mezuak
haizatzen ditugu
geure hitz jarioekin
eta mututze hautatuekin.

Erraza da,
arrunt eta arras,
zure gogotik
bertze gogo bat
ezin konprenitzea.

Amodio promesak,
indiferentzia bestak
ospatzen ditugu
zibilizazioaren ardoarekin
eta salbaien errituekin.

3. BIZKAR ESKOLA

*«Damutuko zara
zure oinazeari kontra eginez gero.»*

FORUGH FARROKHZAD
(Miren Agur Meaberen bidez)

Bizkar eskolan, Forugh,
inork ez dio kontra egiten oinazeari,
nahiz eta iraganean egindakoen damuak
batzuetan aditzen diren aldageletan,
gidoirik gabeko elkarrizketa intimoetan.
Aski da begi-belarriak irekitzea
ohartzeko denok bat egiten dugula:
gorputzaren oinazeak
mina eragiten du gogoan.

Bizkar eskolan, Forugh,
bizkarrari entzuten ikasten dugu
eta haren kodean alfabetatzeko
asmoz urteak egiten ditugu.
Avizenaren esaldiak eta iragarki
komertzialak daude paretetan:
on eta gaitz egiten diguten ohiturez,
isil-ozenka erasotzen digun bizimoduaz,
estresari patxadaz irabazi beharreko guduaz.

Bizkar eskolan, Forugh,
bizkarra ematen ere ikasten dugu:
ez dakusat zu bezalako jenderik,
zurea bezalako zauririk,
zurea bezalako larrurik.
Lezioak eta lesioak
biltzen diren patio honetan
nire azentu bereko ikaskideen
oinaze-minak baizik ez dira aditzen.

4. KOPETAKO WIFIA

*Gasteizko Salburua Eskolako ikasleei:
ederki zimurtu dugu kopeta elkarrekin.*

Haurrei esker jakin dut
wifia dudala kopeta zabalean.
Irri egiten dudanean
edota aurpegiarekin harritzean
lortzen omen da konexio hobea:
adinen gaineko zimurren kodea.

Internetik gabeko larruaren
toles eta ildo bakoitzak
miresmena eragin du gelan.
Kopetako erreken misterioa
eskuz nahi izan didate ukitu:
altxorraren mapa ongi definitu.

Kolageno faltaren kontura
bizi diren estetika enpresek,
gerra egunero irabazi arren,
bataila galdu dute nabarmen:
larrugorritan da enperadorea;
biba zimurren jantzi dotorea!

5. KLASE ERTAINA

*«Gu klase ertain horren
ondorengo erreakzionarioak gara.»*

UXUE APAOLAZA, *Mea culpa*

Altuera ertaina.
Zakil ertaina.
Klitori ertaina?
Alajaina!

Estres ertaina.
Depresio ertaina.
Min ertaina?
Alajaina!

Ikasle ertaina.
Ratio ertaina.
Gabezia ertaina?
Alajaina!

Kontsumo ertaina.
Soldata ertaina.
Miseria ertaina?
Alajaina!

Familia ertaina.
Bikote ertaina.
Adulterio ertaina?
Alajaina!

Adin ertaina.
Klase ertaina.
Ertain ertaina?
Alajaina!



Bigarren geltokia



6.

LIBIDOLI

(KABARET BATERAKO PROPOSAMENA)

*«Nire barkamenik beroenak
ulertzen ez nauenarentzat.»*

OLAIA INZIARTE, *Martizianoak*

Libidoli

libidola

libido, libido

libidola.

Oraingo zaharrak

ez du behar

lehengo helduak

behar zuena?

Libidoli

libidola

libido, libido

libidola.

Nork erran du

gazte orok

sumatzen duela

irrika osoro?

Libidoli

libidola

libido, libido

libidola.

Sexu aferan

batzuk beti prest.

Gizonak ezin

adierazi ezetz?

Libidoli

libidola

libido, libido

libidola.

Dela sobera,

dela falta:

sosen antzera

politikoa da?

Libidoli

libidola

libido, libido

libidola.

7. ADJEKTIBOAK

*«Jarri tratuari iraultzaile etiketa,
eta bere bizitza osoan egin duena egiten jarraituko du pozik.»*

KATIXA AGIRRE, *Berriz zentauro*

Bertze hitz batzuk
baino zakarrago
zahartzen ari zaizkit
adjektiboak.

Bertze solas batzuk
baino bide makurragoa
egiten ari dira
gogoaren geografian.

Argi dakusat gorputzean:
mingaina loditu didate;
isilka bakandu kopeta;
ozenki zartatu larrua

8. PAUSAREN KAUSAN

*«Hanka baten gainean, geldi,
lurraren bira sumatzen da.»*

JUAN KRUIZ IGERABIDE

Pausaren kausan
nahi dut militatu.
Pertsonala dena
afera politiko bilakatu.
Lasterkrazia teknologikoa
afan analogikoaz borrokatu.

Pausaren kausan
nahi dut militatu.
Munduaren ziztu eroak
zurrumbiloan bezatzen baikaitu.
Merezi dugun duintasunak
patxada ere eskatzen baitu.

Pausaren kausan
nahi dut militatu.
Bizitzari denbora eman
eta geure buruarentzat hartu.
Maitasunaren teorian sakondu
eta zeurekin lasai praktikatu.

9. ZATIKIAK

«Empezamos escribiendo inventarios, y después invenciones
(primero las cuentas; a continuación los cuentos).»

IRENE VALLEJO

Aitak bizirik egindakoaren
bi heren
gastatuak ditut jadanik
maileguz egokitutako inbentarioan.
Arren, makur goiztiarrik ez nire istorioan.

Kontuak eta ipuinak nahasten dituen
narratiba soziala
adin ertainaz mintzo zaigu,
eta aldi berean etiketaren fikzioaz.
Litekeenaren azken herenaren atarian.

Zatikiak ageri zaizkit, osorik,
galdu-irabazien excelean:
oraindik amets egiteko beharra,
uneko adina fabulatzeko manera.
Irene Vallejo aipatzeko aukera.

10. NIGAN EZ GELDITZEKO

*«Norbereburugintza da egungo gerra.
Berriz bila dezagun elkarren ederra.»*

ANONYME POPULAR,
Mundumoduinmundu

Nigandik abiatu naiz
nigan ez gelditzeko.
Gugandik abiatu naiz
hitzei bizitza emateko.

Pluralak bilatu ditut,
eta pluralak zaizkit etorri.
Entzuten ikasi singularretik
maite dugun horri.

Ibili izan naiz aitzinekoen
eta ondokoen deklinabidean.
Gramatika berrira moldatzen
ikasten ari gara ezinbertzean.

Nigandik abiatu naiz
nigan ez gelditzeko.
Gugandik abiatu naiz
bizitzei hitza emateko.



Hirugarren geltokia



11.

~~LAU DIAGNOSTIKO~~ BOST DIAGNOSTIKO

*«Un escritor tiene la obligación moral de acertar
más a menudo que un meteorólogo.»*

MILENA BUSQUETS

Ez genekien nola ote zitekeen:
bi pertsona bizi diren etxean
lau diagnostiko sartzea.
Kolpetik.
Kolpean.

Psikiatrak, traumatologoak,
psikologoak, kardiologoak.
Eta erizainak. Eta laguntzaileak.
Eta zeladoreak. Eta garbitzaileak.
Denak eta gehiago sartu ziren tarrapatan.

Ez genekien nola ote zitekeen.
Baina hemen dira, Alde Zaharrean.
Jateko platerik hartzen ez badute ere.
Aspiradorea pasatzen ez badute ere.
Eta ez dute joateko inolako asmorik.

12. AMAREN LETRA

*«Hiltzen naizenean
ospitalean igaro ditudan aste hauek
deskontatu beharko lituzkete.»*

ANA MALAGON, *Sinadura*

Inoiz ez nuen ongi entenditu
amaren letra.
Anta deitura a minuskula larri batekin
egiten zuen.
Ez zegoen antzematerik benetan
zein hizki zekartzan sinadurak.
Eskolan ikasitako kaligrafiaren legeak
xehetu egiten zituen praktika hark.
Eta kargu hartzen nion horregatik umetan
gehien maite nuen pertsonari.

Hipotesiak ere formulatu nituen
hainbat eta hainbat urtez.
Osakidetzan lan egiteagatik ote zen
letra bihurria.
Oinarri enpirikorik gabe, medikuen errubrika zuela
esaten nion orduan.
Ez jakinki kaligrafiarekin baino gehiago
gramatikarekin lotua zela afera.
Sinadurak ematen zuen singularraren
eta pluralaren arteko tentsioaren berri.

Ez da nabari mende aldaketa
amaren letran.
Anta deitura a minuskula larri batekin
egiten du oraindik.
Ez dago antzematerik benetan
zein hizki dakartzan sinadurak.
Nire letra ere halatsukoa dela
esan izan didate etxean.
Osakidetzan lan egindako baten
seme izateagatik ote dudan.

13.
MEKARANDA
(VOZ EXTREMEÑA)

«Cada muerte es una lección de vida.»

ANDRÉS NEUMAN

Utikan euskararen nazioarteko eguna!
Haize Durangoko Azokari!
Ospa dezagun inoren lurraldeko
eta nabarmen gure aldeko
abenduarien 5 loriatsu hau.
Ospa dezagun mekaranda
jatetxe galiziar batean:
bi ospitaletatik
atera dira egun berean
bi guraso, bi aitona-amona,
kontent bi pertsona.

Utikan euskararen nazioarteko eguna!
Haize Durangoko Azokari!
Ospa ditzagun
Alde Zaharrean, Judimendin eta Salburuan
egun argitsu hauek.
Ez dezala Andrés Neumanek
(oraindik bederen)
arrazoia hartu:
bizitza bakoitza ere bada
bizitzaren gaineko eskola bat.
Bi, kasu honetan.

14. MAINGU

*«Zein izaki ibiltzen da
lau hankatan goizean,
bi hankatan eguerdian
eta hiru hankatan arratsean?»*

ESFINGEAK EDIPORI

Maingu
maingu
mainguka
herren
herren
herrenka
dabil
ez dabil
gure ama.

Xirriki
xirriki
xarraka
tirrika
tarriki
tirrika
hartu
ez hartu
makulua.

Pauso
pauso
pausoka
taupa
taupa
taupaka
seme
ez seme
eta aita.

15. AITA-SEME SINPATIKOAK

«Nos inventamos muchas veces todos los días.»

XUAN BELLO

Hain gara sinpatikoak XXI. mendeko aitok.
Adin batetik gorako emakumeen begietara batez ere;
baina ez bakarrik.
Haur txikiekin jostatzen garenean batez ere;
baina ez bakarrik.
Seme-alaba nerabeak besarkatzen ditugunean batez ere
baina ez bakarrik.
Eta, sinpatikoak garelako, hain gara baldarrak.

Hain gara sinpatikoak XXI. mendeko semeok.
Bizirik dauden beste ama batzuen begietara batez ere;
baina ez bakarrik.
Aulki gurgildunak bultzatzen ditugunean batez ere;
baina ez bakarrik.
Guraso zahartuak besarkatzen ditugunean batez ere;
baina ez bakarrik.
Eta, sinpatikoak garelako, hain gara traketsak.



Laugarren geltokia



16.

IZAKI TRAKETSAREN BALSÀ

*«Bizitzak arrazoi du,
kasu guztietan.»*

RAINER MARIA RILKE
(Patxi Salaberri Muñoaren bidez)

Espezie gailena omen da gurea,
gainerako animaliak zokoratu
eta mirakulu urdinaz jabetu dena.

Politikaz kezkatzen ez zenari
—arrazoi osoz, zentsurarik gabe—
behinola idiota deitzera atrebitua.

Barrengo munduak oraindik ere
ezagutzeko dituen izaki traketsa,
eta unibertsoa behatzeari emana.

Balsaren buklearen infinitua
bikoteentzako dantza bihurtu duena,
Vienako aretorik dotoreenetan.

Gerrak kausa nobleen izenean
egiten dituen sapiensa, eta behar denean
bakearen negoziua sustatzen dakiena.

Intelligentzia artifiziala sortu duena,
adimen naturalarekin ez dakigulako
geure laburraren luzea ikusten.

17. ULERTZEN EZ DUDANA

*Poesia Eusko Legebiltzarrera eraman omen zuen
lehen Lehendakari Patxi López.*

Identitate nazionalek
—etnikotzat jotzen direnek—
ezinbestean desagertzera jo behar dutela
oroitarazten dute batzuek maiz aski.
Globalizazioa aurrera ari dela nahitaez,
munduko pertsonok gero eta mundutarrago
izan gaitezen XXI. mendean.

Ulertzen ez dudana da
—*a ver si usted, como pionero exlehendakari, me puede ayudar*—
zergatik biltzen dituzten gorpuak solemneki
munduko potentziak diren gobernuek
euren bandera-ereserki nazionalekin,
gerretara bidalitako soldadu hilak
aberrira itzultzen dituztelarik.

18. BADAKI IGNORANTZIAK

*«Fikzioa da egia,
gezurra ez bezala.»*

A. ALIEVA

Badaki ignorantziak
ezjakinak sortzen,
berez gauza handirik
ez dakien arren.
Hain da ona horretan,
ezen jakinduria ignoratzen
ikasi baitu
zatar eta lerdan.

Badaki gezurrak
dotore ibiltzen,
berez hanka motzak
dituen arren.
Hain da ona horretan,
ezen egia gezurtatzen
ikasi baitu
ilun eta garden.

19. EGIA ESTATISTIKOAK

«Jendeak egia itxuragabetzeko ere erabil ditzake estatistikak.»

TXIKIPEDIA

Banaz bertzeko batek elkartzen gaitu
aldentzen gaituen neurri berean.
Inoiz ez garen errealitate horrek
ordezkatzen gaitu. Dotore.
Zientziaren izenean
osatzen dute guztion egia.
Denok galtzen dugu zerbait
kolektiboaren mesedetan.

Ez al da irudi ederra?

Hunkitzen nau zurekin bat egiteak
maindirepean ez bada ere.
Nork erranen zigun matematiken adarrek
halako fruituak emanen zituztela.
Bil, sailka eta azter gaitzatela
egoerak eskatzen duen moduan.
Bihur gaitezen —elkartasunez— lagin,
populazio osoaren errepresentazio.

Ez al da metafora zoragarria?

20.

POETA IZATEAREN ABANTAILAK

«Los poetas son más felices que los novelistas.»

JOHN BANVILLE

Poeta izatearen abantailak:
ez dute poema txar batzuek
liburu osoa zapuztuko.
Eleberri batean, ordea,
pasarte orok behar du on,
lana balekotzat hartzeko.

Poeta izatearen abantailak:
eskuragarriago dute zoriona
letren beltza zurira ekarrita.
Askoz apalagoa da presioa;
genero minoritarioek badute
aitortu gabeko ifrentzu gozorik.

Poeta izatearen abantailak:
saiakerak ere eskribi ditzakete;
eta antzerkiak, eta zutabeak,
eta aforismoak, eta ipuinak,
eta itzulpenak, eta kantikak.
Salbu daude madarikaziotik.



Bosgarren geltokia



21. INGELESEZ BAKARRIK

«Metaforekin izendatzen dugu mundua.»

LOREA AGIRRE

Ingelesez bakarrik
ahoratzen omen diren
solasak
irudiak
kodeak
mundu bakarraren diktadura dira.

Ingelesez bakarrik
posible omen diren
jaiotzak
bideak
helmugak
ez dira maite ditudanen ezaugarri.

Ingelesez bakarrik
erran omen daitezkeen
desirak
egarriak
ferekak
ezin dira sobera fidatzekoak izan.

22. ONA TXARRA DELARIK

*«Hiztegi zaharra
zaharrago, eta indarbertituago.»*

JOSE ANJEL IRIGARAI

I

O_{na}
txarra delarik,
onkeria dela dio gure hiztegi zaharrak.

Uste apalak
harrotzen gaituelarik,
apalkeria.

Politikoki zuzen
agertu nahi izatea,
zuzenkeria.

II

Txarra
txarra delarik,
txarkeria dela dio gure hiztegi berriak.

Uste harroak
hanpatzen gaituelarik,
harrokeria.

Politikoki oker
agertu nahi izatea,
okerkeria.

23.

EZ DUT DEUS ERE BIZARREN KONTRA

«¡Qué barba tengo! (¡Qué dolor bárbaro!)»

GLORIA FUERTES

Ez dut deus ere bizarren kontra;
zergatik izan behar ote nuke?
Nahi dut hitzez jardun, ez urduri,
ahoan bilorik gabe eta bixarguri.

Aspaldi zaharreko erregeak,
zirkuko emakume bizardunak.
Nork bere erotika dezala aukeratu,
ilearen kili-kilia goxoki sumatu.

Ez dut deus ere bizarren kontra,
erlamandoen zizta pairatuagatik.
Lehengo eta oraingo incel pizarroak,
gizonki maite ez ditudan ilegarroak.

Bizarra baitu artoak, bizarra baleak.
Bizarra negozio bizargile onak.
Bizarra miopeak, bizarra ogroak.
Biba bizar sarriak! Biba barbaroak!

24. DESERTORE

*«There is, as you can see,
and I in this story.»*

ABDULRAZAK GURNAH, *Desertion*

Hain da iluna
eta sakona
eta gainetik kentzen zaila
mende luzeetako
gizonkeriaren itzala
gizontasunaren soinean,

ezen

oraindik ere

gizonetik gizonera
samurtasuna, maitasuna
adieraz dezakeen
ia gure edozein keinuk
desertore salatzen baikaitu
prepuzio beltzen lubakian.

25.
AKATS OPTIKOAREN ZIKLOA

*« L'attention est la forme la plus rare
et la plus pure de la générosité. »*

SIMONE WEIL


Itxiko dut
—noizbait itxi beharko—
akats optikoaren zikloa.
Weilen baimenarekin:
neure presbiziatic
arreta estrabikora.

Itxiko dugu
—zuen baimenarekin orain—
akats optikoaren zikloa.
Hurbileko betaurrekoekin:
denon singularretik
neure pluralera.

PORRA

- 1.— Zein hiru hizkuntza erabili dituzte haien diskoetan?
 - A. Ingelesa, galegoa eta euskara
 - B. Poloniera, katalana eta euskara
 - C. Frantsesa, galegoa eta euskara
 - D. Italiera, ingelesa eta euskara
- 2.— Zein beste kantariren bertsiorik ez dute egin?
 - A. Jose Afonso
 - B. Bob Dylan
 - C. Leonard Cohen
 - D. Lou Reed
- 3.— Musikari hil baten omenaldi diskoan parte hartu zuten. Norenean?
 - A. Mikel Errazkin
 - B. Rafa Berrio
 - C. Estitxu
 - D. Mixel Labeguerie
- 4.— Norena da “Mapa” kantuaeren letra?
(“Galdemoduen trilogia”, 2017)
 - A. Anaïs Nin
 - B. Emily Dickinson
 - C. Wisława Szymborska
 - D. Sylvia Plath
- 5.— Nazim Hikmet poeta turkiarraren poema batekin kantua sortu zuten 2012an. Nola zuen izena kantua?
 - A. Mundu honetako deusek
 - B. Deus ez du mundu honek
 - C. Munduaren deusez honetatik
 - D. Mundua, eta deus ez





Testu hauek
jendaurrean irakurri ziren
2025eko urriaren 4an
Hernaniko kaleetan.